



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAI A

## PRENTSARAKO OHARRA

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK, 18 URTE BETETEN DITUEN BALIABIDERIK BAKO NERABE “GUZTIEN” ARRETEA BERMATZEKO PROTOKOLOA ESKATU DEUTSIE ALDUNDIARI

- Aho batez onetsi dan Elkarrekin Bizkaiaren arau besteko proposamen batek, umeen zerbitzuan dagozan adinbakoek adinez nagusi egiten diranean arretea jasoten jarraituko dabela bermatzea eta Gizarte Ekintza eta Gizarteratze sailen arteko koordinazioa hobetzea eskatzen deuto Aldundiari.
- Zaintzaileen artean “kasu koordinatzailearen” figura zabaltzearen aldeko apustua egin dau Aldundiak.

*(Bilbon, 2020ko bagilaren 5ean).* Bizkaiko Batzar Nagusiek Elkarrekin Bizkaia taldearen arau besteko proposamen bat onetsi dabe aho batez. Proposamen horretan, “adinez nagusi egiteagaitik umeen zerbitzutik urten behar daben” nerabe “guztiei” arretea emoten jarraituko dala bermatzea eskatu jako Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari.

Ekimenean talde moreak planteetan dauenez, helburu hori gauzatu ahal izateko, “urteteko eta heldutasunerako trantsizioa egiteko protokoloa” gauzatu behar da. Protokolo horrek, “heldutasunerako trantsizioa gizarteratzerako benetako bermeakaz egiteko bidean laguntzak behar dituen gazteei arretea emongo jakela bermatu beharko dau”.

Ganera, euskal sistemako prestazioen eta zerbitzuen zorroagaz bat etorrira “beharrezkoak” diran zerbitzu guztiak martxan jartea eskatzen jako Aldundiari, dagon eskariari erantzuteko, eta baita Gizarte Ekintza eta Gizarteratze sailen arteko koordinazioa hobetzea be, “modu koordinatuan eta osagarrian” erantzun ahal izateko.

Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak “bihotzez” eskertu dau Batzarretako taldeen jarrera, “urte pila batean” lortu gura izan dauen ekimenaren alde azaltzeagaitik. Adierazo dauenez, erabagi horregaz “danok irabazten dogu, herritar guztientzat dalako ona, gazte horreentzat batez be”. Izan be, “sarri askotan”, adin nagusitasuna lortzen dabenean geratzen jaken aukera bakarra kalean bizitzea da. Madariagak gogora ekarri dauen inkesta batek erakusten dauenez, Bizkaian etxe barik dagozan gazteen “%21” Aldundiaren Umeen Zerbitzuetatik igaro da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Ganerako taldeek be uste dabe Aldundiak “pausuak emon” behar dituala, eta 18 urtetik gorako gazteei emoten deuten arreteagaz “jarraitu”. Foru Gobernuia eusten daben taldeek (EAJ-PNV eta PSE-EE) adierazo dabenez, Elkarrekin Bizkaiaren ekimenak “Aldundiko sail bi horreen artean daborduko hasita dagon bidean sakontzen dau”. Dana dala, Jane Eyre Erquieta jeltzaleak esan dauen moduan, “erakunde guztiei jagoken” arazoa da.

## ZAINZAILIEN “KASU KOORDINATZAILIEN” ZABALTZEA

Beste alde batetik, Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatuak, zaintzaileen “kasu koordinatzaileen” figuraren ganean Durangaldean bere sailak egin dauen txostenaren barri emon dau Bizkaiko Batzar Nagusietako batzordean, EH Bilduk eskatuta.

2018ko maiatzean eskualde horretako “90 zaintzaile” egindako inkestaren ondorioek erakusten dabenez, figura hori Bizkaia osora zabaltzea “beharrezkoa eta egokia” da. Inkestea jaso daben zaintzaileen “%80k”, gehienak emakumeak, figura horren beharragaz “nahiko edo oso ados” dagozala adierazo eben. Figura horrek familia baxen jarraipena egiten dau, menpekotasuna daukien personen eta zaintzaileen beharrak identifikauz, esku-hartzeko plana diseinauz eta inplikauta dagozan zerbitzu guztien beharra koordinauz.

Hori dala eta, Murillo figura hori Bizkaia osoan zehar zabaltzearen alde agertu da, “menpekotasuna daukien personen zainketea duitzeko bidean aurrera egiteko modua” dalako. Bizkaian, behar horrek emakumeen ahotsa dauka, izan be, zaintzaileen “%64” emakumeak dira. Eta “gizarte arloko laguntasunaren ikuspegiagaz” zabaldu behar da; “aholkularitza pertsonalizaua, etenbakoa, dinamikoa, emoteko asmoagaz egin behar da, persona bien bizitzako egoera guztietan, menpekotasuna daukan personaren eta zaintzailearen bizitza kalidadea hobetzeko helburuagaz”, esan dau.

Une honetan Bizkaian, Familia Ingurunean Zainketak emoteagaitik Prestazino Ekonomikoa (PECEF) jasoten daben 21.000 persona dagoz. Ondorioz, menpekotasuna daukien personen beste horrenbeste zaintzaile informal dagoz. Holan dagoz autortuta 2018an onetsi zan Zaindarien Bizkaiko Estatutuan.

## COVID-19AREN GASTUAK

Beste alde batetik, 2018-2023 epealdirako Aldundiko zazpi azpiegituren kudeaketea Azpiegiturek erakundeari agindu izanaren ganean galdetuta, Murillok esan dau agindu hori urtez urte aldatzen dala, hainbat baremo kontuan



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

izanda, plaza baxotxerako marketan dan prezioa, besteak beste. 2020an, hasera batean, aurrekontuetan 22.666.000 euro egozan helburu horretara bideratuta, eta, azkenean, “20.216.840,82 euro” beharko dira, Azpiegiturak erakundeak eta Gizarte Ekintza Sailak osatutako batzorde mistoak hartu dauen erabagia dala eta. Foru diputatuak adierazo dauenez, doikuntza horrek ez dauka “eraginik personengan, profesionalak edo gizarte zerbitzuetako erabiltzaileak badira be”. Aldea “Adinekoentzako Programarako” erabiliko da, beste batzuen artean, eta ekitaldi honetan, “COVID-19aren krisiak sortu dituan gastuei aurre egiteko,batez be”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA PIDEN A LA DIPUTACIÓN UN PROTOCOLO PARA GARANTIZAR LA ATENCIÓN DE “TODOS” LOS ADOLESCENTES SIN RECURSOS QUE CUMPLEN 18 AÑOS

- Una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia, aprobada por unanimidad, solicita que se garantice la atención a menores de los servicios de infancia cuando pasan a la edad adulta y que se mejore la coordinación entre los departamentos de Acción Social y de Inclusión.
- La Diputación apuesta por extender la figura de la “coordinadora de caso” entre las personas cuidadoras.

(Bilbao, a 5 de junio de 2020). Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado por unanimidad, una proposición no de norma de Elkarrekin Bizkaia, que insta al Departamento de Acción Social de la Diputación a “garantizar” la continuidad de la atención a “todos” los adolescentes “cuya salida del servicio de infancia se produzca por cumplimiento de la mayoría de edad”.

En la iniciativa, el grupo morado plantea que para hacer efectivo este propósito se desarrolle “un protocolo de salida y transición a la vida adulta” que “garantice la atención a todos aquellos jóvenes que precisen de apoyos para realizar una transición a la vida adulta con garantías de inclusión social efectiva”.

Además, se pide a la Diputación que ponga en marcha los servicios “necesarios” de acuerdo a la cartera de prestaciones y servicios del sistema vasco, que den respuesta a la demanda existente, y que se mejore la “coordinación” de los departamentos de Acción Social y de Inclusión, con la intención de dar respuesta “de forma coordinada y complementaria”.

La portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga ha agradecido “enormemente” la postura de los grupos por apoyar una iniciativa que lleva persiguiendo una “matraca de años”. Ha señalado que con ella “ganamos todos y todas, porque es bueno para toda la ciudadanía y en especial para estos jóvenes”, quienes “en muchos casos” se ven obligados a vivir en la calle al cumplir la mayoría de edad. Según una encuesta que ha recordado Madariaga, el “21%” de los jóvenes sin hogar de Bizkaia han pasado por los Servicios de Infancia de la Diputación.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

El resto de grupos creen también que la Diputación debe “dar pasos” y ofrecer una “continuidad” a la atención que dispensa a jóvenes mayores de 18 años. Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral (PNV y PSE-EE) han argumentado que la iniciativa de Elkarrekin Bizkaia “ahonda en el camino iniciado ya entre ambos departamentos forales”, aunque no deja de ser una problemática que “atañe a todas las instituciones”, ha advertido la jeltzale Jane Eyre Erquieta.

## EXTENSIÓN DE LOS “COORDINADORES DE CASO” DE PERSONAS CUIDADORAS

Por otro lado, el diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, ha dado cuenta hoy en la comisión correspondiente de las Juntas Generales de Bizkaia, a petición de EH Bildu, del informe realizado por su departamento en el Duranguesado sobre la figura del “coordinador de caso” de las personas cuidadoras.

De la encuesta realizada a “90 cuidadoras” de esta comarca en mayo de 2018, se concluye que la extensión por Bizkaia de esta figura es “pertinente y oportuna”. El “80%” de las cuidadoras encuestadas, la mayoría mujeres, declararon que está “bastante o muy de acuerdo” con la labor de esta figura, una persona que realiza el seguimiento de cada familia, identificando las necesidades tanto de dependientes como de cuidadores, diseñando un plan de intervención y coordinando el trabajo de todos los servicios implicados.

Por ello, Murillo se ha mostrado a favor de extender esta figura por todo Bizkaia, ya que es una mejora que supone “avanzar en la dignificación de los cuidados a las personas dependientes”, labor que en Bizkaia tiene voz femenina, ya que el “64%” de las personas cuidadoras son mujeres. Y debe extenderse, “con una visión de acompañamiento social; con el propósito de ofrecer asesoría personalizada permanente, dinámica, tanto como las situaciones vitales de ambas personas; con el objetivo de buscar tanto la calidad de vida de la persona en situación de dependencia como la persona cuidadora”, ha dicho.

En Bizkaia hay registradas actualmente 21.000 personas beneficiarias de la Prestación Económica por Cuidados en el Entorno familiar (PECEF) lo que, en consecuencia, suponen otras tantas personas cuidadoras informales de personas en situación de dependencia, reconocidas como tales en el Estatuto de Personas Cuidadoras de Bizkaia, aprobado en 2018.

GASTOS COVID-19



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Por otro lado, preguntado por la encomienda a Azpiegiturak de la gestión de siete infraestructuras forales para el periodo 2018-2023, Murillo ha informado que esta encomienda se va modificando cada año en función de diferentes baremos como el precio/plaza que se marca. En 2020, había inicialmente consignados en los presupuestos 22.666.000 euros para este fin y, finalmente, se necesitarán “20.216.840,82 euros” en base a la decisión tomada en la comisión mixta formada por Azpiegiturak y Departamento de Acción Social. El diputado foral ha mantenido que este reajuste no tiene “repercusión en las personas, se refiera a profesionales o personas usuarias de servicios sociales”. La diferencia será utilizada “para el Programa de Personas Mayores”, entre otras cuestiones y “especialmente”, en este ejercicio, “para hacer frente a los gastos generados por la crisis de la COVID19”.